



eskohitza
danona da



Kultura ondarea

- Museoaren balioa indartu Eskoriatzan eta Eskoriatzatik at (eskaintzaren berri eman, museoaren ezagutarazi, museoaren bisitak herria zein eskualdea ezagutarazteko erabili...)
- Komunikazio eredu berraztertu eraginkorragoa izan dadin (mezuak errepikatu, triptikoak erabili, publiko desberdinei egokitutako komunikazio bideak erabili, elementu pizgarriak txertatu, museo kanpoko ekintzen berri eman...)
- Bisitari kopurua handitzeko ordutegi zabalagoa eskaini, ikasleen bisitak gurasoak erakartzeko erabili, erakusketak osatu hitzaldi eta tailerrekin, erakusketa iraunkorra elementu pizgarriak txertatu, museoaren kalera atera...
- Urteko programa egiteko ekintza arrakastatsuek errepikatu, herriko elkarteekin adostutako ekintzak eskaini, ekintzen maiztasuna finkatu)
- Museoaren identitatea definitu
- Eskualdeko herriekin elkarlana egin (udale arteko itunak egin)
- Zubiaterako planteamendu didaktikoa egin

Ingurumena

- **Kontzientzia falta da orokorrean. Eskola umeekin Agenda 21 lantzen da eta aukera handia da baina eskola garaia bukatutakoan hutsunea dago. Gurasoak direnez seme-alaben eredu, gurasoengana heldu beharko ginateke**
- **Gauzak antolatzen jarraitu behar da (hitzaldiak, tailerrak, erreka eguna...) nahiz eta erantzun eskasa izan, zerbait mugitzen bada ez da gutxi**
- **Etengabe informatu behar da eta jendearen iritziak jaso**
- **Garrantzitsua da hasera haseratik jendearen partehartzea egotea eta gainontzeko herrietako esperientzietatik ikastea**
- **Ekintza ezberdinekin egindako lorpenen berri eman behar da, adibidez farolak aldatzen badira zenbat aurreztu den, zer espero den... zenbat olio litro berziklatu diren, horrekin zer ekidin dugun...**
- **Herriko Agenda 21 jarri beharko litzateke martxan**
- **Guraso-eskola-udala elkarlan beharrezkoa da**
- **Instituzioek bidea markatu behar dute**

Turismoa

- Ibilbide turistiko desberdinak osatzea Eskoriatzan zehar eta baita bailaran zehar ere, gai desberdinak ardatz hartuta (ingurumena eta paisaia, ibilbide kulturalak, historikoak, industrialak, bidegorriak)
- Eskoriatzako puntu interesgarriak nabarmendu (Atxorrotz, tumuluena ibilbideak, elizateak, trenbide zaharra Elorretako errota, Alberja + Bidebarrietako paseoa + erromatar zubia, Apotzako hilerria)
- Bizikletaz zein oinez egiteko mendi ibilbideak markatu elizateetan zehar.
- Seinalitika hobetu: mendi ibilbideena, nahiz herri barruko puntu interesgarrienak.
- "Errekan gora" bezelako ekimenak urte osoan zehar mantendu eta saiatu kanpoko jendea erakartzen.
- Eskoriatzakoak diren ohiturak ezagutarazi Eskoriatzatik kanpo: Santa Ageda eguna, Urdelardero eguna, ...
- Turismoa norentzat: lehenengo bertakoentzat eta gero kanpokoentzat.
- Eskoriatzako haurrek (nagusiek ere, baina bereziki haurrek) ez dituzte elizateak ezagutzen: ikastetxeetatik txangoak antolatu elizateetara.
- Ezagutzaren transmisioari garrantzia emateko, kultur ondareareari buruzko liburuxkak ateratzea eskolentzako. Herritarrak hezteko, eta bide batez, ondarea baloratu, errespetatu eta zaintzeko.
- Atxorroz hemendik kanpo ezagutaraztea eta Ibarraundi museoan Atxorrotzi buruzko erakusketa iraunkorra egitea.
- Eskoriatza zirkuitu turistikoan sartu (Gipuzkoakoan behintzat)
- Eskoriatza kanpoan herri industrial bezala azaltzen da. Hau aldatu. Eskoriatzaren beste alderdi batzuk ezagutarazi. Eskoriatza web-ean erakargarri agertu dadila.
- Herria zikina dago. Herria garbitu eta erakargarri bihurtu bailarako jendearentzat
- Asteburuetan turismo arloan lan egiteko norbait kontratatzea



Merkataritza

- Bertan kontsumitzeko ohitura sustatu eta herrian kontsumitzeko sentsibilizazio kanpaina egin (esaterako: gabonetako argiak jarri beharrean, aurrekontu hori merkatariekin kanpaina berezia egiteko erabili)
- Kontsumo taldeak sortu, bertako baserritarrekin harremanetan daudenak, bertako produktuak herritarrei helarazteko.
- Herriko merkatariak, nekazariak eta abeltzainak harremanetan jarri: herriko dendetan bertako produktuak saltzeko.
- Ostiraletako merkatua: kokapena egokia al da?
- Merkatarari baten iritzia ostiraletako merkatuaren inguruan: kanpoko salerosketa eremuak sustatu beharrean, bertako negozioak bultzatu.
- Erdiko kalea oinezkoentzat mugatu (peatonal)
- Herriko merkataritza eskaintzaren kalitatea hobetu
- Udalarentzako eskaera: herrian zerbait antolatu nahi duenari babesa ematea. Ez oztoporik jartzea.
- Kontsumitzaile fidelak sustatzea.
- Merkatararien elkarteak eratuta dago eta ondo antolatuta. Ez dute ekintzarik antolatzen nekaketa/aspertuta daudelako. Nola lagundu? Laguntza ekonomikorik?
- Aisialdia eta kontsumoa geroz eta lotuagoak daude. Aisialdiarekin lotutako merkataritza kanpainak sustatu.
- Bidezko merkataritza sustatzea

Enplegua eta ekonomia

- Nekazari gazte/jubilatu eta kolektibo "desfavorecidos"-ak elkartu egitasmo batetan. Zertarako?
 - Lurra landu eta kontsumo sareak hornitzeko
 - Ekoizpen ekologikoak sustatzeko
 - Errehabilitazio programa bezala
 - Sozializazio programa bezala
- Udalak, lur emankorrik badu, horrelako proiektuak sustatzeko erabil ditzake.

Oharra: Gai hau mankomunitatetik eramaten dela nabarmendu da. Elkarrizketetan inork ez du proposamen garbirik autoenplegua sortzeko edo bertako ekonomia sustatzeko. Parte-hartzaileek nabarmendu dute gaur egun bizi dugun krisi orokor honen koiunturapean gaudela.